


Langabeziaren hileko bilakaera, generoaren arabera



Otsailean, aurreko urteetan gertatu den bezala, urtarrilean langabeziak pixka bat gora egin ondoren, Lanbiden erregistratutako langabeen kopuruak behera egin du berriro.

2025eko otsailean 6.737 langabe zenbatu dira Donostian (2.983 gizon eta 3.754 emakume), urtarrilean baino 43 pertsona gutxiago.

- Langabezia - % 0,6 egin du behera urtarrilaren aldean.
- Langabezia - % 3,3 egin du behera 2024ko otsailaren aldean.

Otsailean emakume langabeen eta gizon langabeen kopuruak behera egin duen arren, jaitsiera hori nabarmenagoa da gizonen kasuan (-%1,1; -%0,3 emakumeen kasuan).

Aurreko urteko hilabete beraren aldean, otsailean berriro jaitsi da langabeen kopurua, % -3,3 (228 pertsona langabetu gutxiago). 2024ko otsailarekin alderatuta, gizon langabeen eta emakume langabeen kopuruak behera egin badu ere, gizonen langabeziak emakumeenak baino jaitsiera nabarmen handiagoa izan du (% -4,7 gizonetan eta % -2,1 emakumeetan).

	Donostia	Gipuzkoa	EAE
Langabezia indizea	7,4	7,8	9,7
Gizonen langabezia indizea	6,7	6,6	8,1
Emakumeen langabezia indizea	8,0	9,1	11,3
Genero arrakala	1,25	2,55	3,15

Lanbiden erregistratutako langabezia-indizea % 7,4ko balioan mantentzen da: % 6,7 gizonen artean eta % 8 emakumeen artean (ehuneko 1,2 puntuko genero-arrakala).

	Langabezia indizea	EAErekiko aldea
Gipuzkoa	7,8	-1,9
Donostia	7,4	-2,3
Bizkaia	10,5	0,8
Bilbo	12,3	2,6
Araba	10,8	1,1
Gasteiz	11,1	1,4

Lurraldeen arteko konparaketan, Lanbideko datuen arabera, Gipuzkoa eta Donostia dira EAEn langabezia-indize txikiena duten lurralde historiko eta hiriburuak.

		Hiletik hilerako aldaketa	Urtetik urterako aldaketa
Langabezia totala	6.737	% 100	-% 0,6
Gizonezkoak	2.983	% 44	-% 1,1
Emakumezkoak	3.754	% 56	-% 0,3
Gipuzkoa	28641	-% 1,1	-% 1,8
EAE	108.435	-% 0,8	-% 1,9

Urtarrilaren aldean, langabeen kopuruak behera egin du Gipuzkoan eta EAEn ere (- % 1,1 eta - % 0,8).

2024ko otsailarekin alderatuta, Gipuzkoako eta EAEn langabeen kopuruak ere behera egin du (-%1,8 eta -%1,9), baina jaitsiera horiek Donostiakoak baino apalagoak dira (-%3,3).

Langabezia tasa EUSTATen arabera (2024 4. hiruhilekoa)

Lanbiden erregistratutako langabezia-indizea kontuan hartu beharrean (7,2 abenduan), EUSTATEk hiru hilean behin argitaratutako langabezia-tasa hartzen badugu erreferentziazat (Biztanleria aktiboaren jardueraren arabera estatistika), berriz ere ikusten dugu Gipuzkoa eta Donostia direla, 2024ko hirugarren hiruhilekoan, langabezia-tasarik txikiena izan duten lurralde historikoak eta hiriburuak.

LANGABEZIA TASA (EUSTAT): 2024ko laugarren hiruhileko datuak.

	Gizonak	Emakumeak	Guztira
Gipuzkoa	5,4	6,1	5,7
Donostia	5,8	6,7	6,2
Bizkaia	7,2	8,7	7,9
Bilbo	8,7	9,2	8,9
Araba	6,3	7,7	7,0
Gasteiz	6,6	7,7	7,2
EAE	6,5	7,7	7,1

Eustatek, Lanbide ez bezala (Lanbide-ren bulegoetan izena emanda dauden eta enplegu-bilaketa aktiboa egiten duten pertsonak hartzen ditu kontuan), langabetzat hartzen ditu lana aktiboki bilatzen ari diren 16 eta 74 urte bitarteko pertsonak, hau da, azken 4 asteetan lana bilatzeko kudeaketak egin dituztenak (Lanbideren bidez edo beste edonola). Galdeketa baten bitartez egiten da neurketa.


JARDUERA-TASA (EUSTAT, 2024ko laugarren hiruhilekoa).

	Gizonak	Emakumeak	Guztira
Gipuzkoa	60,7	53,8	57,1
Donostia	60,3	54,7	57,3
Bizkaia	59,5	51,3	55,2
Bilbo	60,4	50,6	55,2
Araba	62,2	53,1	57,5
Gasteiz	61,3	53,0	57,0
EAE	60,3	52,2	56,2

OKUPAZIO-TASA (EUSTAT, 2024ko laugarren hiruhilekoa).

	Gizonak	Emakumeak	Guztira
Gipuzkoa	57,4	50,5	53,8
Donostia	56,8	51,1	53,7
Bizkaia	55,3	46,8	50,8
Bilbo	55,1	46,0	50,3
Araba	58,3	49,0	53,5
Gasteiz	57,2	48,9	52,9
EAE	56,4	48,3	52,2

Langabeziaren banaketa, adinaren eta generoaren arabera



Donostian, 2025eko otsailean:

- 55 urtetik gorako 2.326 langabe erregistratu dira Lanbiden (33 urtarilaren aldean).
- 45 eta 54 urte bitarteko 1.526 langabe erregistratu dira Lanbiden (-26 urtarilaren aldean).
- 35-44 urte bitarteko 1.207 langabe erregistratu dira Lanbiden (-30 urtarilaren aldean).
- 25 eta 34 urte bitarteko 1.175 langabetu erregistratu dira Lanbiden -6 urtarilaren aldean).
- 25 urtetik beherako 503 langabe erregistratu dira Lanbiden (+22 urtarilaren aldean).

Langabeen kopuruak behera egin du adin-tarte guztietan, 25 urtetik beherakoetan izan ezik.

LANGABEZIA SEXUA ETA ADINAREN ARABERA:

	Gizonak	Emakumeak	Arrakala
25 urtetik beherakoak	% 53,7	% 46,3	-7,4
25 eta 34 urte bitartekoak	% 48,2	% 51,8	3,7
35 eta 44 urte bitartekoak	% 40,3	% 59,7	19,5
45 eta 54 urte bitartekoak	% 44,4	% 55,6	11,3
55 urtetik gorakoak	% 42,3	% 57,7	15,4

Emakume langabeen kopurua gizonena baino handiagoa da adin-tarte guztietan, 25 urtetik beherakoetan izan ezik.

EMAKUMEEN ENPLEGUAREKIKO EGOERA:

Genero-berdintasunean aurrerapenak izan diren arren, emakumeen langabezia-tasa handiagoa da gizonena baino, eta horrek adierazten du oraindik ere oztopoak eta genero arrakalak daudela lan merkatuan, emakumeek lana lortzea eta karrera profesionalean aurrera egitea oztopatzen dutenak.

Hori are nabarmenagoa da pertsonen beste familia erantzukizun batzuei aurre egiten dieten adin-tarteetan, hala nola seme-alaben edo beste senitate batzuen zaintza.

Testuinguru horretan, datuek erakusten dute langabeziaren kronifikazioa dagoela 35 urtetik gorako emakumeen kolektiboan.

Egoera horrek 35 eta 45 urte bitarteko emakumeei eta 55 urtetik gorako emakumeei eragiten die batez ere, denbora luzean generoen arteko aldea 14 ehuneko-puntutik gorakoa baita.

Zehazki, 35-44 urteko emakumeen kasuan, genero-arrakala ehuneko 19,5 puntukoa da.


Horren arrazoia izan daiteke adin tarte hori aitatasun, amatasun eta seme-alaben heziketarekin asoziatzen dela. Era berean, badirudi tradizionalak emakumeei seme-alaben zaintza eta heziketa erantzukizun handiagoa esleitu dieten genero-rolek indarrean jarraitzen dutela, azken urteetan berdintasunean aurrera egin duten arren. Ondorioz, emakumeek lan-merkatuan duen parte-hartzeak eragina izaten jarraitzen du.

Donostiako hiritarren artean, nahiz eta, batzaz beste, emakumeek gizonen baino ikasketa maila altuagoa izan, goi-mailako ikasketak dituzten emakume langabeen ehunekoak (Lanbide Heziketa eta unibertsitate) nabarmen gaitzen du hezkuntza-maila bera duten gizonena adin tarte guztietan.

Gainera, adin-tarte guztietan (batez ere 45 urtetik gorako adin-tarteetan) gizonen baino emakume gehiago kontratatzen badira ere, aurrerago ikusiko dugun bezala, datuek bide ematen digute pentsatzeko emakumeek enplegua lortzea zailtzen duten oztopo eta arrakala horiek ere eragina dutela kontratazio-motan.

Beraz, emakumeek sinatutako kontratuen partzialtasuna gizonena baino ia ehuneko 16 puntu handiagoa da.

Langabeen hezkuntza maila




Langabeen % 43,3ek derrigorrezko ikasketak ditu bakarrik. Hala eta guztiz ere, langabeen % 18k unibertsitate-ikasketak ditu (Gipuzkoan eta EAEn baino ehuneko 6,5 puntu gehiago, gutxi gorabehera).

Gipuzkoarekin eta EAerekin alderatuta, Donostiako langabetuak kualifikazio handiagoa du (gehiago dira unibertsitate-ikasketak dituzten langabeak, eta gutxiago, soilik, derrigorrezko ikasketak dituztenak).

Proportzioan, gizon langabe gehiago daude oinarrizko ikasketak dituzten emakume langabeak baino. Hala ere unibertsitate-ikasketak dituzten emakume langabeen proportzioa nabarmen handiagoa da ikasketa-maila bera duten gizonena baino. Beraz, eskura ditugun datuetan oinarrituta, esan genezake **Donostiako langabeen artean, oro har, emakumeek gizonek baino kualifikazio handiagoa dutela.**

Unibertsitate-ikasketak dituzten langabeen generoaren eta adinaren arabera banaketa aztertuz gero, ikusten da 30 urtetik beherako emakume langabeen % 20k unibertsitate-prestakuntza dutela, eta gizonen % 12k. 30-55 urtekoen artean, proportzio hori % 22,4 da emakumeen artean eta % 16,2 gizonen artean. 55 urtetik aurrera, unibertsitate-ikasketak dituzten langabeen ehuneko % 18ra jaisten da emakumeen kasuan, eta % 14ra gizonen kasuan.

Langabeek gehien eskatzen dituzten lanbideak



PERTSONA LANGABEAREN PROFILA:




	Donostia	Gipuzkoa	EAE
45 urtetik gorakoak	%57,2	%54,2	%54,8
35 urtetik beherakoak	%24,9	%26,3	%25,4
Iraupen luzeko langabezia	%42,2	%44,1	%48,3
Atzerritarrak	%15,5	%20,9	%19,2
EB-ko atzerritarrak / Atzerritarrak	%18,5	%16,8	%15,2
Unibertsitateko ikasketak dituztenak	%18,0	%11,5	%11,5
DBHra arteko ikasketak dituztenak	%43,3	%52,4	%54,7

Gipuzkoarekin eta EAerekin alderatuta, honako hau nabarmendu behar da:

- Proportzioan, Donostiak 45 urtetik gorako langabe gehiago ditu.
- Proportzioan, Donostian gazteen langabezia txikiagoa da.
- Proportzioan, Donostiak EAEk eta Gipuzkoak baino iraupen luzeko langabe gutxiago ditu.
- Proportzioan, Donostiak EAEk eta Gipuzkoak baino atzerritar jatorriko langabe gutxiago ditu.
- Donostian, EBtik datozen atzeritar langabeen proportzioa, atzeritar jatorriko langabeen guztizkoari dagokionez (% 18,5), Gipuzkoakoan erregistratutakoa (% 16,8) eta EAEn erregistratutakoa baino handiagoa da (% 15,2).

Langabeek gehien eskatzen dituzten okupazioen artean, enplegu-eskatzailiek Lanbideren bidez interesa agertu dutenak, zerbitzuen sektoreko okupazio kualifikatuak eta kualifikaziorik gabeko okupazioak nabarmentzen dira.

Sinatutako kontratuak eta kontratatutako pertsonak



Otsailean, emakume langabeen eta gizon langabeen kopuruak behera egin duen hilabetean, **emakumezkoen kontratazioa gizezkoena baino handiagoa izan da beste behin.**

Hala ere, otsailean, **emakumeek sinatutako kontratuen ia erdiak lanaldi partzialekoak dira** (% 54), eta **gizonek sinatutako kontratuen % 37 baino ez dira mota horretako kontratuak.**

Azkenik, **kontratatutako pertsona guztietatik, % 11 emakume atzeritarrak ziren** (atzeritarrak Donostiako biztanleria osoaren % 10,2 dira).

Otsailean 6.444 kontratu sinatu dira, hau da, urtarrilean baino % 15 kontratu gutxiago (1136 kontratu gutxiago). 2024ko otsailaren aldean, 368 kontratu gutxiago sinatu dira, hau da, kontratazioa % 5,4 jaitsi da.

	Gizonak		Emakumeak		Guztira
Hileko kontratuak guztira	2.756	%42,8	3.688	%57,2	6.444
Aldi baterakoak	2.090	%42,3	2.847	%57,7	4.937
Mugagabeak	666	%44,2	841	%55,8	1.507
Lanaldi partziala	1.031	%34,2	1.987	%65,8	3.018
Lanaldi osoa	1.725	%50,4	1.701	%49,6	3.426


Kontratu horiekin 4.622 pertsona kontratatu dira, hau da, urtarrilean baino % 15,6 gutxiago (857 pertsona gutxiago). 2024ko otsailaren aldean 261 pertsona gutxiago kontratatu dira, hau da, kontratatutako pertsonen kopurua % 5,4 jaitsi da.

Batez beste, kontratatutako pertsona horietako bakoitzak 1,4 kontratu sinatu ditu urtarrilean.

	Gizonak		Emakumeak		Guztira
Kontratatutako pertsonak guztira	1.953	%42,3	2.669	%57,7	4.622
Sinatutako kontratuen ratioa	1,4		1,4		1,4
24 urtetik beherakoak	529	%45,0	647	%55,0	1.176
25 eta 34 urte bitartekoak	531	%43,0	703	%57,0	1.234
35 eta 44 urte bitartekoak	335	%40,0	502	%60,0	837
45 eta 54 urte bitartekoak	374	%41,6	526	%58,4	900
54 urtetik gorakoak	184	%38,7	291	%61,3	475
Atzeritarrak	397	%42,8	530	%57,2	927

- Nabarmendu dezakegu:**
- Adin-tarte guztietan kontratatu dira emakume gehiago gizon baino. Batez ere 55 urtetik gorakoen adin-tartean (tarte horretan kontratatutako pertsonen % 61 emakumeak ziren).
 - Sinatutako kontratuen % 22 mugagabeak ziren (urtarrilean baino ehuneko 2 puntu gehiago).
 - Sinatutako kontratuen % 47 lanaldi murriztukoak dira (% 42,1 azaroan eta % 46 abenduan). Kontratu horiek gehienbat emakumeek sinatzen dituzte (kontratu horien % 66).
 - Kontratuen % 5235 urtetik beherakoek sinatzen dituzte.
 - Kontratuen % 30 45 urtetik gorakoek sinatzen dituzte. Horietatik % 59 emakumeak dira (%66 abenduan eta %60 urtarrilean).
 - Kontratatutako pertsonen % 20 atzeritarrak ziren. Gainera, kontratatutako atzeritar jatorriko pertsonen % 57 emakumeak ziren.

Kontratuak sektore nagusien arabera¹



OSTALARITZA

- Sektoreak hiriko kontratazioan duen pisua zertxobait murriztu du eta hirian sinatu diren **kontratu guztien % 13,7** sinatu ditu (%14,9 urtarrilean).
- Hiriko **kontratu mugagabe guztien % 25,8** sinatzen ditu (% 23,6 urtarrilean).
- Beste behin, **sektore horretan sinatu da kontratu mugagabeen bolumen handiena**, 389 kontratu mugagabe (377 urtarrilean).
- Ostalaritzan sinatutako kontratuen % 44 mugagabeak dira** (% 33 urtarrilean)
- Otsailean kontratazioaren **partzialtasuna hazi egin da ostalaritza sektorean**. Ostalaritzan sinatutako kontratuen % 62 lanaldi partzialekoak dira (% 64 abenduan eta %57 urtarrilean).

MERKATARITZA

- Hiriko kontratuen % 11,9 sinatu ditu** (% 12,2 urtarrilean).
- Hiriko kontratu mugagabeen % 15,4** (% 15,3 urtarrilean) eta **lanaldi partzialeko kontratuen % 17** sinatu ditu (% 18,6 urtarrilean).
- Merkataritzan sinatutako kontratuen % 30 mugagabeak dira** (% 26 urtarrilean).
- Merkataritzan erregistratutako kontratuen % 67 lanaldi partzialekoak dira** (% 67 urtarrilean).

KONTRATU MUGAGABEAK SEKTOREKA:

	GUZTIRA	Gizonak	Emakumeak
Lehen sektorea	2 (%0,1)	%100,0	%0,0
Eraikuntza	77 (%5,1)	%94,8	%5,2
Industria	34 (%2,3)	%55,9	%44,1
ostalaritza	389 (%25,8)	%53,0	%47,0
Merkataritza	232 (%15,4)	%38,4	%61,6
SEIC - PERTSONAK			
Hezkuntza	94 (%6,2)	%38,3	%61,7
Osasuna eta gizarte zerb.	127 (%8,4)	%16,5	%83,5
SEIC - ENPRESAK			
172 (%11,4)	%52,9	%47,1	
Zerbitzu operatiboak	380 (%25,2)	%33,9	%66,1

JARDUNALDI PARTZIALEKO KONTRATUAK SEKTOREKA:

	GUZTIRA	Gizonak	Emakumeak
Lehen sektorea	1 (%0,0)	%100,0	%0,0
Eraikuntza	14 (%0,5)	%85,7	%14,3
Industria	32 (%1,1)	%65,6	%34,4
ostalaritza	549 (%18,2)	%33,7	%66,3
Merkataritza	512 (%17,0)	%30,3	%69,7
SEIC - PERTSONAK			
Hezkuntza	278 (%9,2)	%30,6	%69,4
Osasuna eta gizarte zerb.	619 (%20,5)	%18,7	%81,3
SEIC - ENPRESAK			
256 (%8,5)	%50,8	%49,2	
Zerbitzu operatiboak	757 (%25,1)	%43,1	%56,9

Behin-behinekotasunak oso handia izaten jarraitzen du hirian; Donostian sinatzen diren 10 kontratutik 2,3 baino ez dira mugagabeak (aurreko hilabeteetako maila berdina).

Behin-behinekotasuna jarduera-sektore hauetan nabarmentzen da batez ere: Industria, hezkuntza, SEC eta osasun / gizarte zerbitzuen sektorean (sektore horietan sinatutako kontratuen % 83, % 82, % 82 eta % 89 aldi baterakoak dira, hurrenez hurren).

Lanaldiaren partzialtasuna bereziki garrantzitsua da ostalaritzan, merkataritzan eta hezkuntzan. Gainera, osasun sektorean, non kontratuen % 51 lanaldi partzialekoa den, mota honetako kontratuen % 81 emakumeei egiten zaizkie (oso sektore feminizatua dugu honako hau).


Emakumeek ez dute ia presentziarik lehen sektoreak (% 0) industriak (% 33) eta eraikuntzak (% 5) eskainitako kontratazioan. Hala ere, hezkuntzako kontratuen % 71 eta osasun-sektoreko kontratuen % 79 emakumeen kolektiboarentzat dira.

¹**SEIC:** SEIC terminoak "Ezagutzako Zerbitzu Intentsiboak" kontzeptuari egiten dio erreferentzia, balio erantsi handia erakusten duen zerbitzu-tipologia. SEICak, era berean, **pertsonen zuzendutako SEICetan** (hezkuntza eta osasuna) eta **enpresei zuzendutako SEICetan** banatzen dira (ingeniaritzako, ikerketako, aholkularitzako, sormeneko jarduerak intentsiboetako eta abarretako jarduerak).

SERVICIOS OPERATIVOS Sektore hauek biltzen ditu: garraioa eta biltegiratzea (383 kontr.), finantza- eta aseguru-jarduerak (21 kontr.), higiezin-jarduerak (9 kontr.), administrazio-jarduerak eta zerbitzu osagarriak (1.115 kontr.), administrazioa publikoa (39 kontr.), beste zerbitzu batzuk (70 kontr.) eta etxeetako jarduerak (160 kontr.).

DSBEaren hartzaileak


Otsailean zehar **3.489 pertsonak jaso zuten DSBEa hirian** (urtarrilean baino 17 pertsona gehiago).



Nabarmendu daiteke:

- DSBEa jaso zuten pertsonen **% 61 emakumeak dira**.
- 55 urtetik gorako pertsonak DSBE jasotzen dutenen % 48,3 dira**.
- DSBEa jasotzen dutenen % 22,4k lanaren osagarri gisa jaso dute.
- Donostian DSBE jasotzen zutenen % 29,2k goi-mailako ikasketak zituen (Lanbide Heziketa edo unibertsitateak).
- Gipuzkoarekin eta EAEREkin alderatuta, nabarmentzekoa da Donostiako DSBEa jasotzen duen pertsonak adin eta kualifikazio handiagoa izateko joera duela.

DSBEaren hartzaileak auzoaren arabera



DSBE-AREN HARTZAILEAREN PROFILA:

	Donostia	EAE	Gipuzkoa
16 - 19 urte	%0,3	%0,8	%0,4
20 - 24 urte	%2,4	%2,6	%2,6
25 - 29 urte	%4,6	%5,3	%5,2
30 - 34 urte	%6,5	%7,7	%7,4
35 - 39 urte	%8,4	%9,6	%9,3
40 - 44 urte	%8,9	%10,7	%10,5
45 - 49 urte	%10,1	%11,5	%10,9
50 - 54 urte	%10,4	%11,1	%10,7
55 urtetik gora	%48,3	%40,6	%42,9
barrutitik kanpora	-	-	-
Derrigorrezko ikasketak	%53,3	%61,2	%58,9
Batxilergoa	%9,1	%6,9	%6,9
Lanbide Heziketa	%21,8	%17,9	%20,2
Unibertsitatea	%7,4	%4,6	%4,9
Informaziorik gabe	%8,5	%9,4	%9,2
Lanaren osagarritasuna	%22,5	%21,5	%22,5
Oinarrizko DSBE modalitatea	%77,5	%78,5	%77,5
Gizonak	%42,1	%42,1	%42,1
Emakumeak	%59,3	%57,9	%57,9

DSBE-AREN HARTZAILEAK AUZOAREN ARABERA:

Auzoak	Hiritar kopurua	DSBEaren hartzaileak	Auzokide guztiekiko %
Aiete	14.066	136	%0,97
Altza	19.517	567	%2,91
Amara Berri	29.377	420	%1,43
Antiguo	13.754	129	%0,94
Añorga	2.448	27	%1,10
Ategorrieta-Ulía	3.874	71	%1,83
Centro	21.352	339	%1,59
Egia	14.208	331	%2,33
Gros	17.563	257	%1,46
Ibaeta	9.721	120	%1,23
Igeldo	1.040	6	%0,58
Intxaurrondo	15.010	524	%3,49
Loiola	6.073	178	%2,93
Martutene	2.592	78	%3,01
Miracruz-Bidebieta	8.565	282	%3,29
Miramón-Zorroaga	2.302	24	%1,04
Zubieta	-	-	-